


LITERATURA



EN EL REINO DE LOS INVISIBLES

PUSH

Sapphire

Anagrama, 2010

184 páginas. 15 euros

Novela en la que se ha basado Lee Daniels para su película "Precious". Su autora (California, 1950) es poeta, performer y agitadora cultural, y de ella se ha dicho que «conoce la vida secreta de las ciudades mejor que las estrellas de rap y los sociólogos». Precious, la protagonista de "Push", tiene 16 años, es negra, casi analfabeta, y espera su segundo hijo. El primero lo tuvo a los 12 años y el padre de ambos es su propio padre. Vive en Harlem, con su madre, una reclusa obesa y cruel que mira la televisión sin cesar. Forzada a abandonar la escuela, acabará en un instituto para casos desesperados. Allí podrá recuperar su voz y su dignidad.



LA ADOPCIÓN, UNA HISTORIA REAL

SERENA CRUZ O LA VERDADERA JUSTICIA

Natalia Ginzburg

Acantilado, 2010

152 páginas. 12 euros

Natalia Ginzburg escribió este libro en 1990 en solidaridad con Serena, una niña nacida en Manila en 1986, que fue adoptada por un matrimonio italiano en 1987. Junto a sus padres adoptivos, la niña recuperó la salud que había perdido en el orfanato filipino y era completamente feliz. Hasta que un día, un tribunal decidió retirar la custodia a los padres e ingresar a la niña en un centro de menores. La historia de Serena le sirve a Natalia Ginzburg para hablar del papel de los jueces en los casos de adopciones y se pregunta dónde está la verdadera justicia cuando está en juego el bienestar de los niños, los verdaderos afectados.



Liburuaren azaleko detaile bat.

HAUR NARRATIBA

Liburu onak haur bihurrientzat

PIZTIK BIZI DIREN LEKUAN

Maurice Sendak

Kalandraka, 2009 | Haurrentzat

48 orrialde. 13,22 euro

Asun AGIRIANO

2000an kaleratu zen Kalandraka argitaletxe galiziarren eskutik haur literaturan egundoko garrantzia izan duen album ilustratu hau, euskaraz aspaldi agortua eta iazko Gabonetan berrargitaratua. Izan ere, lehen aldiz 1963an Amerikako Estatu Batuetan jaio zenetik, ezinbesteko liburua da haur literaturan murgildu nahi duen edozeinentzat.

Liburu honek 1964an Caldecott saria jaso zuen, AEBetako bibliotekariak emandakoa. Sari honek bermatzen du liburua ez dela inoiz agortuta geratuko. 1970ean Andersen ilustrazio saria jaso zuen, IBBY-International Board on Books for Young People-n eskutik, zelanbait esanda, haur literaturaren Nobela.

Oraingo edizioa zainduago datorkigu, letra larriak jatorrizko liburuan dauden bezala errespetatuta, esaldiak irudietara hobeto egokituta. Oro har, eskertzekoa da argitaletxeak 2000. urtean argitaratu zuen edizioa hobetzeko egin duen esfortzua. Zinema-aretoetan filma estreinatu dela baliatuz, ipuin ezagun hau liburu-dendetako erakuslehoetan ikusi dugu

berriro Gabon sasoiari. Spike Jonze-k bere gain arrisku handiak hartuz, poesiaz betetako filma egin du, helduentzat akaso egokiagoa den pelikula indie-a. Obama presidenteak ipuin kuttuna duela aitortu zien ikasle batzuei irakurtzen zien bitartean eta, gugandik gertuago, haur literatura ezagutarazteko ETBk astero ematen duen "Ipupomamua" saioak ipuin hau aukeratu zuen hasierako emaldirako. Liburua inspirazio iturri izan da artista ugariarentzat, batzuetan keinu kuriosoak eginez, esaterako, www.terribleyelloweyes.com amerikar web bitxian, non mundu osoko ilustratzaileen omenaldia jasotzen duen.

Album ilustratu bat zerk bihurtzen du klasiko? Zerk egiten du ezinbesteko hainbeste haur eta helduentzat? Ze misterio du ipuinak hain erakargarri izateko guztiontzat?

Liburua korrante psikoanalitikoan koka daiteke. Inkontzientearen labirinto misteriotsuan barrena Sendak-ek haurra bere "mamuekin" harremanetan jartzen du, eta mamuok ezagutu, onartu eta gainditzeko aukera ematen dio. Max protagonistak egiten duen bidaiak esanahi ugari ditu eta argilunez beterik dago, horrelakoa baita haurren mundu emozionala, eremu misteriotsu eta ahula aldi berean, non askatasuna, nahiak, amets debekatu eta gaiztoak bizi diren. Sendak-ek hor arakutzen du, beldur eta fantasien

mundu aberats horretan, hor garatzen baita haurren nortasuna. Zuzen eta garbi adierazte honek ekarri du egilea helduentzat onartua ez izatea, piztiakin haurren beldurrak xaxatuko direlakoan. Berak halaxe dio: «Helduek haurtzaroa sentimentalizatzeke joera dute, gehiegi babestekoa; uste dute haurrentzako liburuek haurren adimena moldatu behar dutela gizartean onartutako jokaeretara, eta lortu behar ditugula ume osasuntsuak, erdugarriak, jakintsuak eta zoriontsuak».

Max haur txiki basatiak garbi azaltzen du asperdura, amorrua, ezinegona. Bere logelatik atera eta irudimenean dituen munstroak sortuko ditu, batzuetan ikaragarri beldurgarriak, besteetan barregarriak, hain otzan eta umil agertzen baitzaizkio. Denen errege izango da, bere buruaren jabe, harro eta indartsu. Max-ek egiten duen bidaiari pertsonaia klasiakoaren tradizioa berreskuratzen du, heroiak lurralde urrun eta ezezagunetara bidaiatuko du, abenturak biziko ditu eta garaile itzuliko da. Beldurra poesiarekin elkartzen da, albumak indar hori du, liburu iraultzailea da. Behin eta berriz, nekatu gabe, irakur daitekeena.

Estetika aldetik urrats aurrerakoi eta berria ezarri zuen Sendak ilustratzaileak. Grafismo aldetik erritmo berria eman zion kontakizunari, marrazkiek orri osoa hartu zuten, indar narratzaile handia dute irudiek, horregatik, ez dago hitzen beharrik, festa martxan jartzen denean, irudia nagusi da, hitzak soberan daude.

"Piztiak bizi diren lekuan" liburua beste birekin osatzen da "In the Night Kitchen" (1970) eta "Outside Over There" (1981). Ea argitaletxea animatzen den bi hauek ere euskarara ekartzen!

aagiriano@gmail.com

1963an Amerikako Estatu Batuetan jaio zenetik, ezinbesteko liburua da haur literaturan murgildu nahi duen edozeinentzat